

IRAGARKIA, 2022ko ohiko Enplegu Publikoaren Eskaintza zabaltzeari buruzkoa.

**SAN SEBASTIÁN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, S.A.**

Administrazio Kontseiluak 2022ko azaroaren 28ko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez emandako ahalmenak baliatuz, zuzendari kudeatzaileak 2022ko lan-eskaintza publiko arrunta zabaltzea onartu du, honako lanpostu eta dotazio hauek sartuta:

<b>32/2021 Errege Lege Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarriaren birjarpen tasa espezifiko 2022ko ekitaldirako (Ministerioaren baimena lortzearen baldintzapean)</b>	
<b>Lanpostua:</b>	<b>Zuzkidurak</b>
Harrerako eta Informazioko Agentea ( Lanaldi osoko kontratu mugagabea)	6
Harrerako eta Informazioko Agentea (Aldizkako kontratu finkoak)	12


<b>32/2021 Errege Lege Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarriaren birjarpen tasa espezifiko 2022ko ekitaldirako (Ministerioaren baimena lortzearen baldintzapean)</b>	
<b>Lanpostua:</b>	<b>Zuzkidurak</b>
Administraria (Lanaldi osoko kontratu mugagabea )	1

Lanpostu eta zuzkidura horiek 32/2021 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren berriazko birjarpen-tasari dagozkionak dira 2022ko ekitaldirako, eta Donostiako Udalak eskatu du baimena. Hala ere, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren zabaltze hori eraginkorra izan dadin, Ministerio eskudunaren baimena lortu behar da.

Gehikuntza horrek areagotu egiten du 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza arrunta, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2022ko maiatzaren 13an onartua, eta honako lanpostu hau jasotzen zuen:

<b>Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 17. xedapen gehigarriaren birjarpen tasa 2022ko ekitaldirako</b>	
<b>Lanpostua:</b>	<b>Zuzkidurak</b>
Komunikazioa Kudeatzeko Teknikaria	1

Ministerioaren baimena lortu ondoren, 2022ko lan-eskaintza publiko arrunta (berrezarpen-tasa arrunta eta espezifiko) gauzatzearen ondoriozko hautaketa-



**Donostia  
San Sebastián**

prozesuetarako deialdia egingo da. Horretarako, [www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion](http://www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion) webgunean argitaratuko dira prozesu horiek bete beharko dituzten baldintza orokorrak eta espezifikoak, eta aipatutako hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonen eskura egongo dira.

Donostian, 2022ko abenduaren 15(e)an

Zuzendari Kudeatzailea,

ISABEL AGUIRREZABALA WURSTER